

**Ebazpena: R 75/2023**

**Espedientea: 11/2019**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nor duen eskumena TRANSBIAGA ELEVACIÓN SL (aurrerantzean, TRANSBIAGA) zergapekoak 2012ko lehen hiru hiruhilekoetan egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko; zehazki, auzia zerbitzuak lurralde erkidean eskusiboki eman zituzten langile jakin batzuen lan-atxikipenen ingurukoa da. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 11/2019 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- TRANSBIAGA egoitza fiskala Gipuzkoan duen sozietate bat da, eraikuntzarako makinak eta ekipoak alokatzen dituena eta zerbitzuak Espainia osoan eta atzerrian ematen dituena; hori bai, lantoki bakarra du, Gipuzkoan bertan kokatuta dagoena.

Enpresaren jarduera nagusia pieza handien muntaketa da, eta, horretarako, funtsean, tonaje handiko garabi mugikor autopropultsatuak, garabi-kamioiak eta lanok egiteko ezinbestekoak diren elementu osagarriak erabiltzen ditu.

2.- Enpresaren jarduera aurrera emateko, 2012-2014 aldian zerbitzuak lurralde erkidean eta atzerrian eman zituzten langileak izan zituen TRANSBIAGAK; bada, aipatu langileei egindako lan-etekinen gaineko atxikipenen diru-sarrerak GFari sartu zitzaizkion.

3.- ZAEAk, 2015eko abenduaren 18an, aipatu lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotutako egiaztapen-jarduketak abiatu zituen, 2016ko urriaren 13ko data duen txosten batekin amaitu zirenak; txostenaren arabera, ZAEari dagokio eskumena.

4.- ZAEAk, 2016ko azaroaren 16an, aipatutako txostena oinarri hartuta ondorioztatutako kopuruak bidaltzea eskatu zion GFari; aldiz, 2012ko lehen hiru hiruhilekoei dagozkien bidalketak atzera bota zituen GFAk, preskripzioa argudiatuta.

5.- ZAEAk, 2019ko apirilaren 3an, inhibititu zedila eskatu zion GFari; aldiz, eskumena berea zela berretsi zuen GFAk 2019ko apirilaren 16an.

6.- ZAEAk, 2019ko maiatzaren 16an, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean; 11/2019 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulu horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

### 2.- Preskripzioa

Arbitraje Batzordeak 11/2014 Ebazpenean eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko, 2022ko otsailaren 10eko, 2020ko abenduaren 3ko, 2021eko urtarrilaren 28ko eta 2020ko maiatzaren 18ko epaietan (ECLI:ES:TS:2015:5337, ECLI:ES:TS:2022:596, ECLI:ES:TS:2020:4077, ECLI:ES:TS:2021:372 eta ECLI:ES:TS:2020:1010 epaiak, hurrenez hurren), irizpide konstante bat ezarri dute: administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea izaera publikoko aurrekontu-eskubidea dela, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidearen preskripzio-epea bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten dela, eta ez dela eteten zergadunaren gaineko eskumenaren jabetzat jotzen den

administrazioak (hirugarren bat izaten da administrazioen arteko harreman juridikoan) zerga-prozeduran egiten dituen jarduketan ondorioz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU**

1.- Preskribatutzat jotzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea, zehazki, zerbitzuak lurralde erkidean eksklusiboki eman zituzten langileen 2012ko lehen hiru hiruhilekoetan egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenen bidalketa erreklamatzeko.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta TRANSBIAGA ELEVACIÓN SL sozietateari.